

## Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

**109. zenbakia****Data 2013-06-10****76 orria**

---

**7 Udal Administrazioa**

BEIZAMAKO UDALA

**Obra txiki eta aktibitate ordenantza.**

---

BEIZAMAKO UDALA

Obra txiki eta Aktibitate ordenantza. Haserako onespena.

2013ko maiatzaren 20an Udal honetan egindako Ohiko Osoko Bilkurak hasierako onarpena eman zion honako ordenantza honi.

Honenbestez, aipatu araudiak jendaurrean jarrita egoteko epea irekitzen da, 30 eguneko, egokiak irizten diren erreklamazioak eta proposamenak egiteko, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita. Hala agintzen du Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, bere 49. artikuluan. Epe horretan erreklamaziorik edo proposamenik aurkezten ez bada Araudia behin betikoz onartuta geldituko da erabaki berririk hartu behar izan gabe.

**Beizama**, 2013ko maiatzaren 29a.—Begoña Garmendia Vazquez, Alkatea. (5672)